

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

2023ko Herri Egunaren likidazioa (1103/esp) (943/sar)

Udal Osoko Bilkurak 2023ko irailaren 21ean egindako bileran, 2023ko Herri Eguna dela eta nekazal erakusketak diruz laguntzeko dirulaguntza zuzena eta ez izenduna onartzea erabaki zuen, hain zuzen, nekazal erakusketak antolatzekeo gastuei lotutako 24.595 €-koa.

2024ko urtarrilaren 24ko sarrera-data duen idatziaren bitartez, Andoni Azkarate Errarte jaunak Nekazarien elkartearen izenean, Herri Eguneko likidazioa aurkeztu du: 18.756,17 €-koa, onartu zen diru-laguntza baino 3.243,83 € gutxiago, alegia.

HERRI EGUNA 2023 BALANTZEA	DIRU SARRERAK	GASTUAK
GUZTIRA	22.000,00 €	18.756,17 €
Udaletxea	22.000,00 €	
Barazki dietak		840,00 €
Ganadu dietak		10.020,00 €
Gazta leihaketa dietak eta sariak		850,00 €
Garraiolariak		2.700,00 €
Esataria		100,00 €
Materialak (Kartelak, lastoa, furgoneta, etab.)		880,46 €
Antolakuntzako afaria(antolatzaile, laguntzaile eta junta) + Herri eguneko hamarretako eta partaide bazkari eta gastuak.		3.365,71 €
UDALARI BUELTATZEKO		3.243,83 €

Aurkeztutako faktura guztiek 3.222,74 € zenbatzen dituzte ($880,46 + 3.365,71 = 4.246,17$ €-ko proposamena aurkeztuta). Sari eta dieten egiaztagirietan, hartzailearen sinadurak aurkeztu dira, baina bakoitzari emandako diru-kopurua.

Eskaera aztertu eta gero, Nekazaritza-auzoak eta Ingurumen teknikariaren proposamena kontuan hartuz, nik, Oñatiko Alkatea naizen honek honako erabakia hartu dut:

.- 18.756,17 €-ko likidazioa onartzea zera gaineratuz, aurretik emandako 3.243,83 €-ko laguntza bueltatu beharko dutela.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2024ko otsailaren 7an

 **Alkatea**

OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui